

2025 – 2026 UNIBERTSITATE + HEZKUNTZA PROIEKTUAK

Ohiko galderak (2023. deialdia¹)

DEIALDIAREN eremuan:

- **Sar al daiteke CoIP bat eskabidean?**

CoIP bat eskabidean sar liteke, betiere proiektuaren gaiak edo konplexutasunak justifikatzen badu.

- **Gehieneko aurrekontu-mugarik ba al dago proiektuan?**

Aurrekontua proiektu bakoitzeko 50.000 €-tik gorakoa ez izatea gomendatzen da.

- **Langileak kontratatzeko partidan, hezkuntza-lankidetzako praktikak garatzea hautagarria izango da?**

Ez

- **Zein baldintza bete behar dituzte taldeak betetzen dituzten ikertzaileek?**

- a. UPV/EHUri modu iraunkorrean lotutako pertsonal lan- funtzionarioak edo kontratudunak; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluaaren modalitatean kontratatutako langileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramón y Cajal programako UPV/EHUn kontratatutako langileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; UPV/EHUri atxikitako Ikerbasque programako langileak; eta irakasle atxikiak edo lehenago atxikitakoak eta plaza iraunkor baterako akreditatuta daudenak; eta Irakasle Laguntzaile Doktoreak.
- b. Pertsonal ez iraunkorra, UPV/EHUri lotura Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 legearen 21. (doktorego aurreko kontratuak) eta 22. (Zientzia eta teknologiaren espainiar sistemara sartzeko kontratua) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez dutena eta Lan kontratudun bitarteko irakaslea edo ordezkari irakaslea, bi kasuetan doktore eta lanaldi osoko dedikazioarekin. Prestakuntza bidean dauden doktorego aurreko ikertzaileei dagokienez, doktorego tesiaren zuzentzaileak proiektua eskatzen duen ikertaldeko kide beharko du izan.
- c. Unibertsitatearen arautegian ezarritako prozeduren arabera, ikerkuntzarako lankide akademikoak.

Zerrendatutako edozein taldetako pertsonal ez-iraunkorren kasuan, UPV/EHUri kontratuak edo loturak gutxienez 2026ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izan beharko du.

¹ Zerrenda hori 2025eko deialdian jasotako galderen erantzunekin eguneratuko da.

AURRETIKO JARDUERAREN LABURPENAREN eremuan:

- Ba al dago baldintzarik **Finantzaketa: proiektuak, kontratuak eta hitzarmenak 2019-2024** buruzko informazioa betetzeko?

Bai, atal honetan adierazten diren aurrekontuak edo kontratuak Ikertu erakundearen datu-basean erregistratuta egon behar dira.

KUDEAKETAREN eremuan:

- **Hiru kontzeptuen artean aldaketarik egin daitezke ebazpena jaso ostean? Erantzuna baiezkoa bada, aldez aurretik baimena eskatu beharko litzateke?**

Ezinezkoa da langileak kontratatzeko partidatik beste kontzeptu batera funtsak pasatzea. Gainerako kasuetan, aldez aurreko baimena eskatu behar da. Baimen hori zientifikoki justifikatuta egon behar da.

- **Ikertzaile berriak sar al daitezke ikerketa-taldean proiektua eman ondoren?**

Ez. Proiektua eskaeran deskribatutako ikertzaileekin garatu behar da.

JUSTIFIKAZIOAREN eremuan:

- **Hasieran aurreikusitako gauzatzearen gaineko luzapenik eska al daiteke?**

Ez

- **Nola justifikatuko dira proiektuak?**

Jarraipen ekonomikoaz gain, eskaeran deskribatutako adierazleak justifikatzeko txosten bat aurkeztu beharko da.